



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Saillburuordetza
Zientzia Politikarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Universidades e
Investigación
Dirección de Política Científica

EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa saillburuordearen 2016ko abenduaren 14koa, 2016-2017 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saillburuaren 2016ko uztailaren 19ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen berritzeak ebazten dituena. Deialdi honek lehenengo, bigarren eta hirugarren berritzea A, B eta C modalitateetan; eta lehenengo berritzea I modalitatean arautzen du.

Berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta, 2016ko uztailaren 19ko aginduak, 2016-2017 ikasturtean ikertzaileen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eta horien berriz ematea deitzen dituenak, xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren A, B eta I modalitateetako onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen berritzea ematea, 2016-2017 ikasturterako, ezarpen zentroa eta horiek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren C modalitateko onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen berritzea ematea, 2016-2017 ikasturterako, beka eta bidaiagatik jasoko duten zenbatekoa adieraziz.

Modalitate hauetako ikertzaileak bekaren egoera juridikoan jarraituko du.

Hirugarrena.- Indarrean dauden lan kontratuak luzatu egingo dira 2016ko uztailaren 19ko Aginduak xedatutakoaren arabera.

Laugarrena.- 2016ko uztailaren 19ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, ordaintzeko era, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuek Hezkuntza saillburuari gorako errekurtsua jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abenduaren 14an.


ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Unibertsitate eta Ikerketa saillburuordea